

Zelatatu eta zigortu

Leize hori, ekialdean haitzulo bat duela, paisaia karstikoaren elementu bereizgarri bat da. Kareharrizko harkaitzean urak duen higadura-funtzioak sortzen ditu lurpeko paisaia horiek, lurpea urratu egiten dela eta kanpoalderantz bidea irekitzen dela ematen baitu.

Nolanahi ere, paisaia honek uste ez zen helburuetarako balio izan zuen: zelatatzeko eta gaztigatzeko. Michel Foucault (1926-1984) filosofo frantsesak, XX. mendeko pentsalari garrantzitsuenetakoa denak, "panoptiko" –"dena ikusten duena", edo antzeko zerbait– kontzeptua erabili zuen erakunde errepresibo modernoan –kartzelak eta ospitale psikiatrikoak, kasu– kontrol- eta zaintza-idealari erreferentzia egiteko. Panoptikoaren funtsa da zentro baten egiturak berak ziurtatzen duela zaindariak subjektu zapalduak puntu beretik eta ikusiak izan gabe kontrolatu ahal izatea. Bazitekeen hori izatea, 1936. eta 1937. urte bitartean, lekua hartzeko erabakia gidatu zuen printzipioa.



Keturako gotorleku errepublikanoetan bezala, grafitiek istorio harrigarri batez hitz egiten digute. Izan ere, kobazuloaren sarreran honako inskripzio hau irakur dezakegu: "Bon Disciplinario". Uste da hitz horiek Diziplina Batailoari buruzkoak direla, nagusiki zigortuez, desertoreez eta susmagarri ideologikoez osatuta zegoen Eusko Gudarosteko taldea, hain zuzen.

Beste armadetan nola, Errepublikarekiko leiala zen armadarentzat beharrezkoak ziren (eta oso atseginak ez diren) lanak egiteko eskulan "ez leiala" aprobetxatzea zen batailoi horren jardura gidatzen zuen printzipioa.

Haitzulo horrek sarbide zaila du, eta, gainera, leizearen ertzaren edozein aldetatik kontrola daiteke. Leize horretako bizi-baldintzak benetan zailak izan behar zuten, baina badirudi Eusko Gudarostearen beharrak eta "erreboltari" deiturikoen zaintza eta zigor printzipioak presoei tratu zuzena ematearen gaineratik lehenetsi zituztela. Izan ere, gatazkaren testuinguruan, demokrazia errepublikanoaren eta euskal autonomiaren defentsaren bandoan zigorra izugarri irmoa izan zitekeen, gerra gero eta gehiago gogortuz joan zen heinean, batik bat.



Haitzuloako sarbidea (ezk.) eta Diziplina Batailoiaren inskripzioa (esk.)

JOSU SANTAMARINA OTAOLA. ZIGOITIKO MEMORIA HISTORIKOAREN IBILBIDEAK

(2019-02-07) ERREPUBLIKAKO FRONTEA (1936-1937)